




Gizarte Segurantzako afiliazioa %2,4 hazi zen

Gizarte Segurantzako afiliazioa
Urte bakoitzeko maiatza. Mila




Iturria: Gizarte Segurantzak.

Maiatzean, Gizarte Segurantzako afiliazioa %2,4 hazi zen urte arteko tasan, hots, aurreko hilean baino bi hamarren gutxiago. Guztira, 986.436 afiliazio erregistratu ziren, serie historiko osoko kopururik handiena baita. Horietatik 472.912 emakumeak ziren, eta bereziki zerbitzuen sektorean kontzentratu ziren.

Langabezia erregistratua %7,6 jaitsi zen maiatzean

Langabezia erregistratua
Urte bakoitzeko maiatza. Mila




Iturria: SEPE.

Lanbideren bulegoetan erregistratutako langabezia %7,6 murriztu zen maiatzean. Guztira, 113.400 pertsona zeuden langabe gisa sailkatuta, zifra hori 2019an, pandemiaren aurretik, jasotakoaren oso antzekoa da. Pertsona horietatik, ia 64.500 emakumeak ziren, hau da, guztizkoaren %57.



IPIak %3,5eko gehikuntza lortu zuen apirilean

Industria produkzioaren indizea
Urte bakoitzeko apirila




Iturria: Eustat.

Apirilean, industria produkzioaren indizea (IPI) %3,5 igo zen aurreko urteko mailaren aldean. Hori horrela izanda, aurreko urteetako balioak nabarmen gainditu ditu. Portaera onena ekipamendu ondasunek erakutsi zuten (%10,7). Aitzitik, energia-aren ekoizpena %4,6 gutxitu zen.

Eraikuntzak %7,2 handitu zuen bere ekoizpena

Eraikuntzaren ekoizpena
Indizea



Iturria: Eustat.

Eraikuntzaren koikuntza indizeak zenbatetsi duenez, sektorearen ekoizpena %7,2 hazi zen 2021eko hiruhileko beraren aldean. Indizearen bi osagaiek aldakuntza tasa positiboak eskuratu zituzten, baina nabarmenezkoa da obra zibilak izandako bultzada handia (%20,9). Halaber, enpleguak portaera ona erakutsi zuten (%1,9).